

Derrigorrezko bigarren hezkuntza



# GIZATERIAREN ONDARE AHANTZIA

# GEODIBERTSITATEA

**Baliabideak:**

Internet, power point, Euskal Herriko georemuen mapa.

**Helburuak:**

- Geodibertsitatea eta geoturismoa zer diren ezagutzea
- Euskal Herrian geoturismoa egiteko eremuak ezagutzea.

**Landutako konpetentziak:**

- Hizkuntza-komunikazioa
- Gizarte eta herritartasuna
- Kultura zientifikoa, teknologikoa eta osasun-alorra.

**GARAPENA**

Azken aldian, ikastetxeetan sarritan entzuten da biodibertsitatea hitza. Denok argi dugu gizakiak biziraun ahal izateko, ezinbestekoa dela gure habitatak ez ezik, animalienak eta landareenak ere babestea. Halere, norbaitek entzun du geodibertsitatea hitza? Ziur ezetz, duela gutxira arte, kontzeptu horri ez zaiolako aitortu duen garrantzia.

Jarduera honen bidez, geodibertsitateari buruz ikasteaz gain, gure inguruko pertsonen transmititzeko gai ere izango gara. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardungo dugu turismo iraunkorraren beste modu bat sustatzeko: geoturismoa.

Gaur egun hainbat argitalpen dago Euskadin ingurumena errespetatzen duen turismo hori bultzatzeko. Halere, horietako bakar bat ere ez dago euskaraz eta, oro har, jendarte zabalak ezin ditu erraz eskuratu. Gure lana zera izango da: aurkezpen erakargarri bat prestatzea, irudiak eta argazkiak ere sartuta, gure inguruko jendeari geoturismoa zer den azaldu eta gure herritik hurbil dauden aukerak jakinarazteko.

Bizpahiru laguneko taldeetan egingo dugu lan. Talde bakoitzak geoeremu bat (geologiaren ikuspegitik ibilbide interesgarriak egiteko aukera eskaintzen duen lurraldea) aukeratuko du, eta lan hori gelako gainerako kideei aurkezteko behar den informazio guztia bilduko du. Honako kontzeptu hauek hartu behar dira kontuan:

1. Geodibertsitatearen definizioa
2. Geoeremuaren izena
3. Geoeremuaren kokapena
4. Geoeremuaren ezaugarri orokorrak, laburtuta
5. Geoeremuaren ezaugarri geologikorik garrantzitsuenak

Informazio-iturriak:  
 Geodibertsitateari buruzko informazio orokorra:  
[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/eu/contenidos/informacion/geodiversidad/eu\\_geo/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/eu/contenidos/informacion/geodiversidad/eu_geo/indice.html)  
 Geoeremuari buruzko informazioa:  
[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/geoturismo/eu\\_doc/adjuntos/Memoria\\_Fase2.2\\_valoracion\\_global.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/geoturismo/eu_doc/adjuntos/Memoria_Fase2.2_valoracion_global.pdf)



Talde bakoitzak mapa itsu bat izango du, aurkezpenak entzun ondoren geoeremuak kokatzeko.

Orain, familiarekin edo lagunekin toki harrigarri horietakoren bat bisitatzea baino ez dugu.

